

KOSTU EGITURAK:

1. Kostu Finkoak

Gure enpresaren kostu finko ohikoenak honakoak dira:

- **Lokalaren alokairua:** Denda fisiko baten lokalaren alokairu edo hipoteka ordaintzea kostu finkoa da, bezero kopurua edo salmentak aldatu arren.
- **Langileen soldatak:** Funtzio zehatz bat betetzen duten langileen soldatak (dendaren kudeatzailearenak...), salmenten arabera aldatzen ez direnez, kostu finkotzat hartzen ditugu.
- **Mantentze eta aseguruak:** Lokalaren mantentze-lanak, elektrizitatea eta ur kontsumo minimo bat, aseguruak, eta segurtasun gastuak.

2. Kostu Aldakorrak

- **Produktuaren kostua:** Gure kasuan, arropa trukatzenez, ez du arropak hornitzaileei erosi behar, beraz ez da kosturik egongo.
- **Langileen ordainsari aldakorrak:** Langileei ordainsari finkoa eta komisio bidezkoa ordaintzen bazaie, azken hori kostu aldakorra izango da, salmenten arabera aldatzen baita.
- **Packaging:** Erosketa poltsak, edo produktuak babesteko osagarriak. Salmentak handitzen badira, packaging gastuak ere handituko ditugu.

3. Eskalako Ekonomiak

Arropa denda batean eskalako ekonomiak hauek dira:

- **Erosketan deskontuak:** Zenbat eta produktu gehiago trukatu, aukera handiagoa izango dute bezeroek beste arropa bat trukatzeko.

4. Hedadura Ekonomiak

Hedadura-ekonomiak denda batek bere jarduera-esparrua zabaltzeagatik lortzen dituen kostu-abantailak dira.

- **Produktu osagarriak eskaintzea:** Arropaz gain, osagarriak (poltsak, zapatak, bitxiak) edo bestelako produktuak eskaintzen dira, bezeroak dendan erosketak gehitu ahal izateko.
- **Zerbitzu osagarriak eskaintzea:** adibidez, jostun zerbitzua, arropa bat zulo batekin ekartzen badute eta orkorrean egore onean badago, 3 euro ordainduta, josteko aukera du. Horrez gain, personal shopper zerbitzua emateak diru-sarrera gehigarriak ekartzen du.